

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Domínguezek 19 gaixoren erakusketa inauguratu du, gaixotasun horren estigma errotik ateratzeko, errehabilitazio mentaleko programaren barnean

Erakusketa Iruñeko Civiox Jus la Rochan ireki da urriaren 25era bitarte, eta "Eragozpenak hausten" programan kokatzen da, gaixo horiek dituzten gaitasunak eta premiak ezagutzera emateko

Ostirala, 2018.eko urriak 5

Fernando Domínguez Osasun kontseilariak "**Bizitza atalak dira**" erakusketa inauguratu du gaur Iruñeko Civiox Jus la Rochan, osasun mentaleko arazoren bat duten 19 pertsonaren lanak biltzen dituen. Lan horiek Clara Goñi artistak zuzendutako mosaikoen tailerlean egin dituzte.

Lan artistikoa 'Eragozpenak hausten', programan kokatzen da, Nafarroako Osasun Mentaleko kudeatzaileak sustatua Errehabilitazio Unitatearen bitartez; unitate hori San Francisco Javier zentroan kokatzen da, Txantrea auzoan.

Programaren helburuak dira pertsona kaltetu horien errealitatera gerturatzea eta jarrera aldaketa sustatzea, haien bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzen laguntzeko nahiz gaixotasun mentalaren bat duten pertsonen estigma errotik ateratzeko eta haien trebetasunak eta premiak ezagutzera emateko helburuarekin.

Kontseilariak Osasun Mentaleko zuzendari kudeatzailea den Begoña Flamariquerekin eta Osasun Mentaleko Errehabilitazio Unitateko zuzendaria den Amalia Zarzuelarekin batera bisitatu du erakusketa; bertan, tamaina ezberdineko 18 obra jasotzen dira (70x41 cm handienak, 30x28 cm, 40x53 cm, 50x30,5 cm, 30x50 cm, 29x33 cm eta 29x21 cm txikienak).

Dominguez kontseilariak tailerlean parte hartutako 19 pertsonaren ahalegina eta lana azpimarratu ditu, eta Osasun Mentaleko Errehabilitazio Unitateak, gaixotasun mentalaren bat duten pertsonen errehabilitazio-programaren barnean, sustatutako jarduerak duten garrantzia



Dominguez kontseilaria, Begoña Flamarique, Amalia Zarzuela eta zentroko gaixo eta profesionalekin.

nabarmendu nahi izan du.

Obrak Clara Goñi artistak, Errazki Onak bezala ezagutzen denak, zuzendutako mosaikoen tailerlean egin dituzte, eta Errehabilitazio Unitateko Terapia Okupazionalako eta Osasun Hezkuntzako profesionalak ere parte hartu dute. Mosaikoak egiteko *Trencadis* teknika erabili dute; hau da, tamaina ezberdineko azulejo irregularrekin konposizio libreak egiteko aukera eskaintzen duena. Osasun Mentaleko Errehabilitazio Unitatean artatutako 19 pertsonak hartu dute parte tailerreko prozesu ezberdinetan, eta azulejoak, zementua eta egurra erabili dituzte.

Artistak berak, gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eskubideen aldarrikatzaile aktibistak, dio "pertsonak, bizitza eta inguruan duguna berriz osatu beharreko zatiez osatuta daudela, mosaiko baten piezak bezala, aurrean dugunaren ikuspegi errealistagoa eta osoagoa izateko". Haren ustez, zati edo atal bakarra ikusteak behatzen dugunaren pertzepzio engainagarria, partziala eta, azken finean, irrealia du. Era berean, ideia hori laburtzen da, zentroaren jardura artistiko eta sortzaileen barruan, Alina DBRk erakusketaren gainean diseinaturiko kartelaren irudian.

Hitzaldi-tailerra eta mahai-ingurua

Halaber, erakusketan, bosgarren edizio honetan, aurreko lau edizioetan aurkeztutako obren erakusketa txikia jaso da. Guztira, teknika ezberdinekin egindako 11 obrak, 3 panelek, 14 mihisek eta azalpen-kartel batek osatzen dute.

Erakusketa urriaren 25era bitarte bisitatu ahal izango da, Jus la Rocha zentro zibikoko lokaletan, Iruñeko Maiteminduen pasealekuko 37an, 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Erakusketarekin batera, Osasun Departamentuak Osasun Mentaleko Munduko Egunaren inguruan antolatutako beste jardura batzuk egingo dira; esate baterako, urriaren 18an, ostegunean, 11.30ean, "Mugimenduarekin adierazi" hitzaldi-tailerra eskainiko du Inés Aubert Badilla dantzari eta koreografoak, eta, urriaren 25ean, ostegunean, ordu berean, "Artistaren hitzak" mahai-ingurua egongo da. Azken horretan, Anasaps-ek eta Errehabilitazio Unitateak egindako proiektu artistikoak aurkeztuko dituzte edota komunitatean Lizarrako CRPS-Ordoizek burututako proiektuak ere bai.

Osasun Mentaleko Errehabilitazio Unitatea

San Francisco Javier Zentroan kokaturiko Osasun Mentaleko Errehabilitazio Unitatea sektoreaz gaindiko osasun-baliabidea da, diziplina anitzeko arreta eta arreta espezializatua, birgaixotzeen prebentzioa eta gaixotasun mental larriko pertsonen autonomia eta gizarteratze ahalik eta handienaren sustapena helburu dituen, errehabilitazio psikosozialeko programa oso, espezifikoa eta banakoen bitartez.

Funtsean hiru programaren inguruan eratzten da: eguneko ospitaleratzea (32 plaza); asteko ospitaleratzea, astelehenetik ostiralera (12 ohe); eta erabateko ospitaleratzea, egonaldi luzeko errehabilitazio-programa moduan diseinatua, 24 orduko ospitaleratze-erregimenean, astelehenetik igandera (16 plaza).



Erakusketako artelanetakoa bat.